


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
52n. ZENBAKIA
EPAILLA
— 1982 —**



OLIBA'KO LEKAIDE-ETXEA
(NAPARROA'N)

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia

BIZKAIERAZ

Gure aldizkari apal onek asieratik artu eban bideak, «Bizkaitarrai bizkaieraz» gure oivak, iñoz baiño gaurkotasun geiago dauka, zorionez. Ez bide orretatik goazelako, bear-izana geroago ta argiago ikusten dalako baiño.

Antxiñatik bake-bakean genbiltzan bizkaieraz berba egiten eta idazten, baiña ez dakit nongo sorgiñak ala txerrenak sortu daben euskera-barruko burruka migarri au edo nortzuk emon daben bizkaierea it egin bear dalako agindu basatia. Eta jakinda be, izenak esan bear ete dira?

* * *

Bizkaierea ez dogu guk asmau. Or dago Errian. Or dago elerti ederrean.

Bi milla urte ba-dira, gitxienez, bizkaian bizkaieraz egiten dogula eta bi milla urte orreitan, inguruko erriakaz izan doguzan artu-emonak gogoratzeko or daukagu artutako ta emondako itzen kondaira jakin-garria. Or daukagu eskualde baten jakintzaren ezaugarri lez gure euskalkia.

Nor dator guri ondasun ori kentzera? Nor dato gure amari bizia kentzera? Betor. Emon bear dautsogun lako erantzuna emongo dautsogu. Eta jakin begie bein betiko iltzaille madarikatuok, gudaldi bat galtzea ez dala gudea galtzea.

Eta... zori txarrez... gudea galtzea ba'litzake be, euskaldunok la'ondo; dakigu,,kondairea lekuko, gudea galtzen dauan erriak zer egin bear dauan eta zer egin dauan.

* * *

Yrizar'tar Pedro jaunak egin dauan billaketa zeatzean. Euskalerrriaren barruan 200.494 euskaldun agertzen dira bizkaieraz berba egiten, Bizkai-barruan 140.229, Gipuzkoa'n 58.402 eta Araba'n 1.863. Eta ez dakigu Euskalerrri'tik kanpoan gure izkuntzaz berba egiten daben 80.000'k zein euskalki darabilen. Kanpo ta barru euskeraz 613.500'ek egiten dabe. Gipuzkoeraz guztiz, 200.049. Olan dala, euskaldunik geienak euskeraz egiten dabenean bizkaierea darabile.

* * *

Eta bizkaierea baztertu egin gura da, bere lekuan ez dakit zelako batua sartu gura da eskoletan eta toki guztietan. Baiña erriaren aurkako burrukak ez dira iñoz onerako. Bizkaia'n bizkaiera egiten ez ba'da, erdera egingo da. Eta euskera barik ez dago euskalerririk, Euzkadi ez da izango Euzkadi izenez baiño. Eta ori baiezteko naikoa da zer jazo dan euskaldun izan diran errietan jakitea: Oska, Bordele-aldea, Busgos'ko iparraldea, Errioxa'ko lurralde batzuk, Santander'eko sortaldea...

Bizkai'tarrak ez dogu gura olako ondamentirik, eta bizkaierea kentzen ba'dauskue, ba-dator ondamentia.

Ez dauala ardura bizkaierea galtzeak, esan eban norbaitek, euskerea bizirik urtetan ba'da. Gudaldia galdu arren ez dau ardura, gudea irabazi ezker, baiña gudaldiak galdu ezker...

* * *

Zer egin, orduan?

Gure dirua darabilenai kontuak zeatz artu eta bizkaierearentzat, Euskalerrrian beti izan dan euskalki onentzat, dan lakoa, bere ortografiaz eta jostereaz, bere iztegi az eta aditzaz, laguntza eskatu eta gogor.

Bizkaieraz berba egin eta idatzi, ezelako lotsa ez bildur barik...

Eta bizi!!!

"Bizkaian euskerea jagon eta indartzeko deia"

Bizkaiko euskaltzale aldra batek agiri bat aurkeztu deutso Eusko Jaur-laritzari, bizkaiera jagon eta indartzeari buruz. Agiri orregaz batera, eskutitz bat bialdu jako Garaikoetxea Lehendakari «ziur gagoz zuk abegi onez aintzat artuko dozula Agiri au, euskeraren onerako» esanaz.

Ona emen Agiria.

«Agiri au izenpetzen dogunok, Bizkaiko euskal erakunde batzuetakoak, alkarregaz euskerearen egoera aztertu ta gero, gauzarik beñinetan bat gatoz, eta orregaitik.

1.—Auxe adierazoten dogu:

1.1.—Benetan artega eta larri gagoz, euskereak gure artean, Bizkaiko errietan, agertzen dauan egoera ikustean: Erri-errian eta etxe-barruan, geroago ta makalago; erdal pentsakeren eta izkuntzen menpean; nagusien eta umetxu-gaztetxuen artean ikaragarriko eten bat sortzeko arrisku bizian; erdal giro indartsu baten murgilduta eta erdi itota...

1.2.—Ainbat aldetan ikusten doguzan alegin andiakaitik itxaropentsu bere ba gogoz: Euskereak «izen ona» lortu dau gaurko gizartean eta euskaldun askoren gogo-biotzetan; euskera ikasleak —adin guztietakoak— ugarritu egin dira; ikastola, ikastaro, ikasgau eskola, euskaltegi, era bateko eta besteko ainbat erakundek Ian gogor era txalogarria daroe aurrera...

1.3.—Gu guztiok bat gatoz oinarriko eretxi onetan: Euskereak Bizkaian iraungo badau, bertoko euskalki berezia jagon, sendotu, zabaldu, aberastu eta gaurkotzea bearrezkoa da. Gure errietan bertako berbetea alboratu eta gitxitzat eukitea, mesedegarri barik guztiz kaltegarri dana ziur gagoz, eta ez Bizkaiko euskalkiarentzat bakarrik, euskerearentzat berarentzat eta gizarteko artuemonetara-

ko ere bai. Bizkaitarrok —eta baita gure euskalkia darabilen Gipuzkoa eta Arabako erriak ere bizkaiera eza-gutu, geuregandu, eta errez eta zuzen berba egiten eta idazten jakin bear dogu, leenengo ta bein. Au lortzen badogu, euskereak bizi-bizirik iraungo dau gure artean, eta batasunerako biderik geiena eginda dago. Baina au galtzen badogu, ziur be ziur gagoz, azal-azaleko itxura datore batzuk iraun arren, euskerearenak egin daua-la Bizkaian (eta ez daigun aaztu, eus-% 40ren batek bizkaieraz berba egiten dogula gaur!).

1.4.—Ainbat erriar minduta agertu jakuz, gure erakunde batzuetan —ofizialetan ere bai— euren buruak, bizkaierera erabiltearren, baztertuta ikusten dituelako, bizkaierera euskera ez balitz legez. Onen aurrean, geu ere mindu egiten gara.

2.—Au ola dala, dei larri bat ginez, auxe eskaltzen dogu:

2.1.—Aozko berbetea jagoteko eta indartzeko bide egokiak billatzen eta zabaltzen alegindu gaitzela guztiok.

2.2.—Norberaren etxe, auzo ta erriko euskera bizitik Alfabetatu daiguzala ume, gazte eta nagusiak: Albait arinen, aal danik eta nekerik txiki-naz, bearbearrezko ez diran eragozpenak baztertuz, mailaka-mailaka euskera zabalago baterako atea e-

2.3.—Ikastetxe guztietan bertoko euskera berezi eta nortasun andikoa zuzen eta txairo erabilteko —bai berbaz eta bai idatziz— gai izan arte. Bien bitartean, beste sistemaren bat jarten astea kaltegarri izango litzateke.

2.4.—Ori lortutakoan, ontzat emoten dogu beste euskalki eta erak eza-gutu eta ikastea: Auxe izan da, ain zuzen, aspalditik bizkaitar eskoren jokabidea.

2.5.—Gure aldizkari, irriti, TV, eta gizarte-artuemonetarako beste tresna guztiak bere aintzat artu daie-la emen eskatzen doguna».

JOSEBA ATXA
(Bilbo Elizbarrutiaren Ikastolen Arduraduna)

JESUS EGUZKIZA
(Bilbo Herri Irratian Euskal Sailekoa)

JOSE ANTONIO RETOLAZA
(Ume eta Gaztetxo Euskaldunen Alfabetatze-Ekintzaren Zuzendari)

KARMELO ETXENAGUSIA
(Irakaslea)

ANDER MANTEROLA
(Derioko Udako Euskal Ikastaroaren Zuzendaria)

FERMIN IRAOLAGOITIA
(Ikastola Katolikoan Alkartearen Lendakaria)

JABIER URIARTE
(Hizkuntza Eskola Ofizialeko Euskal Sailaren Arduraduna)

AGUSTIN ZUBIKARAI
(Idazlea)

MARTIN OLAZAR
(«Zer» Aldizkariaren Zuzendaria)

LINO AKESOLO
(Euskerazaintzako Zuzendaria)

IÑAKI ZUBIRI
(Euskerazaleak-eko Lendakaria)

ARRAIÑAK

MAKALLAUA

Bakallaua edo makallaua dala esaten da euskaldunen arraiña.

Oraintsu Buska Isusi'k esaten eban lez, gure asabak erakutsi eutsen mundu guztiari bera arrantzaten, eta euskaldunak erakutsi gazitu eta guritzen, eta euskaldunak erakutsi, baita, sukaldetan ainbat eratan gertuten.

Bakallau edo makallaua latinezko izenez Gadus da. Baiña Gadus senitartean asko sartzen diran lez, Gadus morhua lez zeaztu bear.

Itxas-beian ibiltzen da, ur-azaletik 300-900 metrotarako sakonetan.

Gadus familian sartzen dira faneka, lotza edo mastrana, tutxuela, aolatz, letxerua, palenka eta abar. Eurok arrantzaten diran itxas urak ezberdiñak dira.

Nortasun beteko bakallaua, Terranoba eta Gran Sotetik iparraldera arrantzaten dabe gure itxastarrak.

LEBATZA


Gure artean arrain ugaria, lebatza edo lagatza da. Bizkaia'n lebatza sarriago erabilten dogu.

Eun metrotik berreun metro inguruak dira bere ur-azpiko bizi leku atsegiñak, eta itxas-ondo arritsu eta gogorak aukeratzen ditu.


Merlucius merlucius dau latinezko izen erabilia. Bai eta merlucius esculentus be.

MERLANA

Famili oneitan ba dago beste bat, letxera edo merlana deitzen dautsena. Txikitán, toki askotan, lebazkume lez saltzen dabe. Liba. Latinezko izenez, *merlangus merlangus*.



LIBA <i>Merlangus merlangus</i>	esp) Plegonero	ing) Whiting
	fr.) Merlan	ale) Mittelmeerdorsch
	it.) Merlano	cat) Peix rei



LEGATZA <i>Merlucius merlucius</i>	esp) Merluza	ing) Hake
	fr.) Colin	ale) Seehecht
	it.) Nasello	cat) Lluc

ZELAKOAK

Baiña ba ete dauke arraiñak erraz bereiztu edo ezagutzeko biderik?

Beste bereiztasun batzun artean, gain gaiñetik begiratu bizkar edo lepo gaiñeko eskardetara.

Lebatzak eskarda talde bi daukaz. Lenengoa laburra eta gerokoa luzea. Libak, barriz, iru eskarda. Aurrekoa tenteena, erdikoa luzeagoa eta buztan aurrean beste laburragoa.

Sabelean, lebatzak eskarda luzea buztaneraíño. Libak lenengo luzea, bitartea eta gero beste txiki bat.


LEBATZA ALA MERLANA

Sarri libak lebazkume edo merlenkatzat artzen diranarren, ezin leikez lebatzekaz nastu edo lebatztat artu. Ez da lebatza bezin on eta atsegiña.

Alaz eta ezin esan askok, uste baiño geiagok, atakotzat jango ez ebenik.

Ikus irudiak. Ikasi bereizten. Maian, kazularan, dagona jatea da. Erostean kontu euki bear.

Augustin ZUBIKARAI



Ona emen gure Anagagasti'tar Pedro Arantzazu'ko Frantzisko' larrak idatzitako olerki liburu polita. Sarrerea aita Onaindia'k egiten dautso.

Irakurteko errezak eta gozoak dira eta lau arlotan datoz: Lurra, Aberría, Gizartea ta Fedea.

Olerki gozo oneitan gipuzkera darabil aita Anasagasti'k, baiña inork ez dau izango gauzea ulertzeko eragozpenik.

Noizean bein olerki negatiak be ba-daukoz, batuta ez dira negar mingotsak, gozoak dirala esan lei. lexaropenez ez ba'da be, gurari onez beteriko aienak dira.

Astiro, baketsu ea atsedenez euskerazko zerbait irakurri nai dabenak erosi begie liburutxu au.

GORBEA LENAGO TA ORAIN

Izenburu au gailzal artuta emon nituzan bi edo iru itzaldi, beste ainbeste menditar Bazkunetan, orain bost edo sei urte, Gorbea edo Gorbeya dala-ta, orain berrogetak urteak arte, mendfidi orrek izan zituan edertasun eta ikusgarri zoragarriak, beste mendi gitxik-lakuak zirako eurok.


Aurreko beste idazlantxu baten aipatuten nebazan Gorbeya'ren ikuskizun aipagarri batzuk, baiña, idazlan ori, ez luzatzearren geiago, amaitu egin neban «beste baterako lagako dogu» esanaz.

Ez dakit zelan izan dan artua «Gorbeya'ra joan-etorri bat» idazpuruz idatzi neban aurreko idazlana ta, beraz, pizkat bildurrez asinaz oraingo au idazten, geure irakurleak azpurtuko ete doguzan bildurrez, baiña, Gorbeya Euzkadi'ren zati eder bat da eta, bera eza-gutuazoteko gurari apalez idatziten dogu danon ZER ontara.

Esandako rdazlanean aipatuten genduzan mendi orren ikuskizun zoragarriak, menditar edo rrendigoizalea'rentzat dituan lekurik atsegingarri'ienak, bada, gure argazki baten ikusi litzaken arkaitz erpiñenak ba-ditu alderdi askotan, urren aurkituko da arzlulo ikusgarriaren aurrean (Supelogor, Mañrulegorreta ta abar) edo, azken-bagako leza ikeragarrf askoren aldamenean (batezberere ltxi-na'ko atxartean).

Bertako atxartetatik urten da belar-landa zabaletan edo, Igiriñao'n bakarrik dan pagadlan.

Eta, gorago igon nai dabenak, Gobeya-gane'ko guretze burdiñezkoaren (amazortzi neurkin gorakoa bera) magalpean.



Bizkai'ko ikuspegiarik onena ta Euzkadi'ko onenatarikoa, bertatik ikusi geinkelako gure A berri'ren zatirf'k aundiena. Ikuskizun orreikaitik-edo, batek mendidi ortara igoten dauanen, ziur barriz bertar'atuko da.

Orain-arte esan doguna baiña, oraingo Gorbeya da, lenagokoa, bertan izan genduan gudaketa zilal artera-arte izan zana, bestelakoa izan zan, ederragoa, basatigoa bear ba'da baiña, aberatsagoa ta gure lurralde ontarako f'zatasunagoa, mendi zabal ortan ziran zugazti azkenbageak ezalduten ebelako bere inguru guztia eta, bertan alikatu edo janarituten zan zeubatu ezin-besteko aberetzagaitik.

Zelangoak izango ziran mendi ortako zugaztiak, Orozkotik Ubide'ra, ea !au orduko ibi!!er'an, gerizpetatik urten barik joaten zan edo, Areatza'tik Murgia edo Murua'ra, sei orduko bidean bardin, zugaitz-azpitik urten barik.

Guk orretarako Gorbeya ezagutu dogun ez-kero, zelangoa izango zan aurreko gizaldietan. Gorbeya?, bildurgarria bear ba'da, urren ikusiko doguzan ber'tar'ako txangoai begiratu esketio.

+ + +

1.850'gn. A lemani'ko Leipzig'en Ikastetxe-Nagusia irakasle-nagusi edo Dtr. zan Moritz Willkomm etorri zan Euzkadi'ra, España'ko mendi-lerro ta beste gauzari ikusgarrienak ikustatu ondoren, Gorbeya ikustatu la zati aundi bat arakatutzen, beste zeregin barik etorri be.

Eta orretarako, Bilbo'tik A reta'ra etorri zan Bilbo'ko bere adizkide euskaldun bat lagun ebala, bakoitza beren zaldi-gaiñean. A reta'n itz-emondu eben inguruak ondo ezagutzen zituan artezari edo gidari bat, artzain bat edo bi eta beronen pardelak eroateko beste gizon zendo bi edo iru, euren txispa edo eskopeta ta guzti.

Urrengo egunean goizean-goiz urten ziran Orozko'tik eta, onen auzune Ibarra ta Zalloa'tik gora eldu ziran ltxi'na (Gorbeya'k dauken alderdirik malkartsuena, latzena)'ko Artxulo edo Arzulo'ra, bertatik, arzulo ortatik igaro la arriarte ortatik zear eta Gorbeyagaiñer'a elduteko, berak esan eban lez, pizkat baiño geiago nekaluta.

Urrengo urtean bere barriz izan zan bertan, Supelogor'ko ar'zuloa ikusi ta arakatzen.

Orduantxe esan ei eban, Moritz jaunak, berak ondo ezagutzen eban gazteleran «El monte de Gorbea es una de las maravillas más sorprendente de la naturaleza en el País Vasco, y solo siento no ser pintor para transmitir por medio del pincel un cuadro exacto de su grandezza».

+ *

Doitztar orren esanak bizkortuta edo, andik urte bi-ra, A reatza ta Gaztelu-Elexabetia'n, Artea'n, egoten ziran udalari mordo batek, osagille, lage-gizon, aldun, apaiz bat,



agiri-idazle eta abarrek antolatu eben Gorbeya'rako txango bat eta, orretarako artu zituene ainbat zaldi, erri orreitako mutil zendo talde bat, adar ta turutu to guzti, zugaitz basati-arte an aldendu ez eñtezan eta, gizon orre in pardelak eroateko ta abar.

Bai-ta aldi ortan, Bilbo'ko mendizaleak bere gertu eben beste txango bat Gorbeya ortarako, gaur-egun Andes ta Himalaya'ra joateko baiño gertakizun geiagogaz; au da:

Bilbo'tik Areta'raño joan ziran bultzian, goizean-goiz eta, arretaz aurreko egunetan bertan gerturik eukezan zaldiak, pardelak eroateko mutil sendoak (batzuek euren /xispa, eskopeta ta guzti), artzain batzuk adar eta turutak aztu barik eta, ondo ezagutzen zan artezari, gidaria aurrenen dala.

Mendia-gora, txispadun mutillak lenen joan bear ziran, urrengo moltzoa baiño aurrerago, basa-pistiren bat edo beste zerbañt ostopo ba-zan kenduteko edo Jakiñarazoteko urrengoari.

Or ikusi daiteke ze basatia ta beraz, zein bildurgarri izango zan Bizkai ta A raba bitarteko mendi-tarte eder ori, gaur-egun erdi-milluzik ikusten dogun Gorbea zabala.

*

Azkenez, idazlan luzetxu au amaitzeko: —Gure argazkian ikusiten dan A txa-Arra, Gorbeya'ko arkatzik erpiñena, 1.955 gko. Urrilla'n 12 gn. igon genduban Bilbao'tar Maritxu, Ealo'tar Iñaki eta lerro oneik idatziten dituanak.

Andik /aster 1.957-2-6'an arkaitz ori bera igoten dabiltzala laprazt eginda ! ziran Urrizar'tar Joseba'Koldo eta Kanales'tar Jon-Mirena galdakanotar mendigoizale jatorrak baizen mutil zintzoak.

-Eta zelan ez! Gure semeak izan bai-ziran-lako adizkide maitegarriak. Goyan begoz.

ALTUNA'tar Josu

IZKILLU ZURIAK

Euskal izkilluen langitzan arlo bat dogu, entzute aundikoa izan ez arren, garrantzi aundia daukana.

Jakiña danez, arlo onetan erabilten diran dirutza ta lan-lekuen ugaritasuna ez datoz batera.

Alan da be, gaien zeintasun edo kalidadea eta atzerrira bialtzen diranen kopurua ondo begiratu ez-kero, kontuan artu bearreko lanak dira oneik.

* * *

Euzkadi'n eta lantegi ezbaridinētan, ez jakiñentzat ia bardin-samarrak diran salgai ta bearkiak antolatzen dabez: Aiztoak, labanak, maketsak...

España-aldean zabal dabillen eritxia da aiztogintza ta labangintza Albazete'n geienbat egiten dirala, eta ori ez da oso-osoan egia.

Jakin-bearreko gauzea da olako lana Euzkadi'n egiten dala laterri osokoaren erdia baiño geiago.

Gure artean nabarmenak Arrasate, Gernika, Ermu, Izarra ta abar dira.

* * *

Euzkadi'ko lantegirik garrantzitasuena «Aitor» deritxona da.

Lantegi onek askotariko aiztogintzan eta la bantingintzan daragoio. Neurri guztietako labanak, oso baliotsuak, lau ortz txiki ta aundidunak, artaziak, birabis eta maratillak, murduxak edo pintzak, mendigoizaleentzat ain bearrezkoak diran txolet-zabalgailuak, itxasoan erabilten diranak, maketsak ta guda-labanak... guztietarikoak egiten dabez.

* * *

Ikuspegi onetatik oartzekoa da eiza-arloan izkillu zuriak dauken garrantzia. Betegarri edo osagarri lez erabilten da.

Izkillu-etxe onek, berrogeitak laterritara bialtzen dauz bere salgaiak. Egiten dauanik erdia kanporatzen da eta beste erdia an-or-emen Laterri osoan bantzen da.

AREGI'tar Josu'k

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- **Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskal bat erabilliaz idatziak.**
- **Ipuinē itzulpenak ez dira onartzen.**
- **Luzerea, orri-alde bi, bitarte bi lerroartean dituela.**
- **Epea: Jorraillaren azkenerako gure Ian-etxean (Colon de Larreetegui 14, 2.^a eskoia) izan bearko dabe.**
- **Sariak: Iru sari izango dira: 1.^a 25.000 pezeta; 2.^a 20.000 pezeta eta 3.^a 15.000 pezeta.**
- **Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.**
- **Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gaiñean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroan txartela.**
- **Maikoen erabagia, bagilleko (ekainilliko) ZER'en agertu da.**

1982, epailla

CUBA BARRUTIK

SENDAKINTZA (XIII)

Sendakintzako aurrerakuntzak ez dira gauetik goizerakoak.

Beraz, Cuba'ko sendakintzari buruz auxe esan bear: naiko atzeratua dala, eta aurrerakuntza aundirik egiteko era aundirik be ez daukara izan.

Cuba'n igaro ditudan illeetan ikusi eta jasatzea be izan dot.

Istripu txikiak izan nebazan, eta osagilleekaz ibilli bearra izan dot. Jakiña, osagilleekaz eta osagaiak artzen.

* * *

Iru-lau itzetan esateko, osagille gitxi dago esan bearrean nago.

Castro'ren iraultza aurreko zaar batzuk be ba-dira, baiña gitxi.

Gazteak ez dira ainbeste, eta oraindik be-rezilari onak eta ulertuak izateko era aundirik ba ez dabe izan.

Beraz, naiko ezkor agertzen naz osagilleen gaitasuna eta ugaritasuna aitatzean.

**

Osagaiak aitatzatzean oraindik ezkorrago nagola esango neuke.

Ango osagaitegi edo farmaziak emengo drogeria batzuk dirudie.

Osagairik geienak papertxu batzuren barruan eta kartazal antzeko batzuren barruan emoten dautzue. Ez dagoz kutxa barruan, eta ez dabe azalpen-paperrik. Esagai kutxak garestiak dira arako, eta, an esaten dabenez, gaisoak ez dau azalpen idatzirik bear.

Beraz, imprentako lana bera be aurreratu egiten dabe. % 90 osagai onela saltzen dabez.

**

Bestalde, emengo osagaitegietan osagai bat saldu eta bat be barik geratzen. diranean, bereala ekartzen dabez beste batzuk.

An ez dago orrelakorik. Barrero osagai berbera aurkitu orduko ille bat edo bi igarotzen jatzuz.

Ez daigun ezer esan goataz edo alkoholaz, adibidez.

Leenengo sarritan ikusi be ez da egiten; bigarrena, alkohola, eukita be ez dautzue saltzen, jendeak ura, azukrea eta tropikoetako fruta batzuk nastatuz edaritzat erabiltzen daukara eta.

Jaungoikoa arren be ez dakitzula tokatu gaixoetxe batera joan bearra.

Nik neuk izan dot, eta birritan gaiñera. Orduak eta orduak igaro eta osagilleak ikusi barrik nengoan.

Atzerri, otso erri. Eta egia: iñoiz baiño bi-ziago bizi neban bizi be gure esaera zaarraren esanaia.

Azken baten be Españako gizon bategaz egoan emakume baten laguntzari esker: tabako pakete batzuk artu, osagilleei emon eta, tire!, begiratu ninduen. Baiña begiratu bakarrik. Zerbait egiteko Bilbora etorri bearra izan neban.

Etorri be egin nintzan, baiña berandu: nire zaiñak egoera txarrean egozan.

Osagilleen lana doan zan dana. Ez eben dirurik jasotzen. Osagaiak, osteria, % 100 ordaindu bearra egoan.

ILZORI

Urteak joan, urteak etorri Euskalerri, erri, aberri, atzerri ede olako euzko-adi baten, zer dan ere ez dan ondo ere ez dakigu ta, Txomin Agirre Arana Garaikoetxea eta Martinez ala Jimenez izar eban laugarren abizena? ez naz ondo gogoratzen; bardin da, kontixu...

Txomin gurea, gizon potolo, matrailla-gorri, zur-luze, begi-argi, betula-baltz, «tripaundi», ondo jan ta ondo edandakoa, barritsu ta guztiz kontularia edo berbalduna zan. Buruan, beti txapel baltza belarri gaiñean, alkondara zuri garbi bat, fraka urdiñak gerriko baltzez atonduak eta oiñetan burua ala buruan oiñak ala... ez naz ondo gogoratzen.

* * *

Bakoitzak bere sendiaren artean, baten bateri antza artzeko oitura eukiten dau, ori gure etxe guztietan jazotzen dala uste dot, sarri entzuten doguz onelako alkarizketak:

Ai Josune... au zure semie Astorkia-tar oker, lupu, barrabasa da, ez da Esturo-tarra... kontuz, kontuz...

Ez pentsa, aitaren sana daukala; pentsaten dot, an goitxarren razie dala ba, neuk pentsa.

Onelakoak edo... ba aitaren begiek daukaz, amaren belarritxuek, aititen ibilkerie, amuman berna ederrak... eta ba-dakizue, azkenean ume koitxada kromo batez eginda dagola esan leike.

* * *

Ba gure Txomin potolori ere olakoak esaten eutsoezan.

Auzoan, Portun, «Gorrireneko» neska-zarrak barrketan asten ziranean Martinez ala Jimenez «Baltzaren» sanekoa zala esaten eben, txoria bizirik lumetutzen eben birtartean.

Amuma Sofiak, abertzale jatorra zan eta arek ez ebalaz ezer baltzik, a bera, Arana'tar uts-utsa zala ziur egoan; bestetik «tia Sabierdi gorrik egoan da ez zan konturatzen mundua nonkik ebilibien be:

—Ai Txomin! Gerrie, gerrie etorri bear daul, naiz eta gudaketa ori orain berrogetazak urteak izan zala.

Txomin, bene-benetan, danetarikoriko apur bat zan: Arana'tarren aldetik zintzoa, abertzalea, burrukalalaria, barriztazailea, eta gainera fededun aundia zan, ez oraingo gazte asko legez.

Agirre'tarren aldetik bere pentsakizunen jarraitzaile jatorra zan, iñoiz bere ardurei itxi barik.

* * *

Bizi zan munduak eta egoerak sarritan bere lanari jarraitu ezin da denporeak apur bat aldatu *egin* eban.

Garaitasuna alde batera itzirik sarritan, beartasunez edo, beralakoak, senideak, anaiak, aztu egi-

ten ebazan, kanpoko lagun ez eza-gunekin alkartzeko, bere beartasunak, eginbearrak, beste bide ez ezagunetatik eroanez.

Ori bai: beti errazoi bat eukiten eban danetarako.

Emen asi zan nire ustez gure Txomin potoloren eriotza. Lengo legeak, garbitasunak, sentimentuak, itxaropenak... alde batera itxi ebazenenan.

Au argitzeko kontutxu polit bat dago: Arana eta Agirre'tarrak euren izenaren omenez besarkada batez konpontzen ebazan euren kontuak, «bota bostak» eta aurrea, baiña Garaikoetxeatarrei papearak asko gustatzen jakezan eta orregaitik sarritan euren eginbearrak eta itxaropenak aztu egiten ebazan. Buru aundikoak, jakitunak ziran baiña sarritan ezin dai-teke biotza aztu.

* * *

Laugarren sendia nik neuk ez neban ezagutu, bakarrik, Martinez edo Jimenez zirala dakit, izatez Jerez de la Frontera-koak.

Martinez'en danporetan gogoratzen naiz Heuskal Herria Independentementien libre askatuta egoala, bueno pero ez egoan orduan euskalerriko seme auctotonorik, autonomoak baiño, «Txomin potolo azkanekoa zan baiña oitura ona jarraitzeko mutil zar gelditu zan eta il zan eta agur. Beti betiko zoriona, gure illeri emon Jauna.

Alan bedi!

MUNIATEGI Asier

EUSKERAZALEAK

Agur lagun maiteok:

Urtero ospatzen dogun Oiko Batzar Nagusian, neuri dagokit gure erakundeak 1.981 urtean izaniko ekintzen azalpenak emotea. Ona emen ba, ((EUSKERAZALEAK» egindako arazorik agirienak.

ETXEA

Oiko ekintzetaz kanpora gaur bidezkoa da gure etxearen erosketea aitatzeta. Ondo gomutako dozuenez, igazko Batzar berezi baten, eskubidea emon zeusten ((EUSKERAZALEAK»en izenean bearrezko urratsak emon nengiazan etxea 2 milloi laurlekotan erosteko, auxe zan-eta lengo jaubeek azkenean jarritako etxe-saria.

Olan ba, Bilbao'ko Aurrezki Kutxari milloi ta erdiko maillegua eskatu geuntsan erosketeta burutzeko.

Lortu genduan esaniko maillegua, eta nozbait Bagilla'n baratariaren aurrean bearrezko agiriak izenpetu genduzan, 1,5ko eskudiru emonaz; enparauko erdi milloiaren ordaintzat, diruagiri bat izenpetu genduan Gabonilla'n ordaintzeko (au onezkero ordainduta dago).

Beraz gaur gure etxearen jaubeak gara, eta olan, betiko lekuan euskerearen alde lan egiñaz jarraituko dogunaren ziurtasuna daukagu.

Arazo onek diru-aldetik aalegin bat eskatzen dausku, baiña orain arte naikoa ondo gabiltzala esan dagikegu.

Eta diru-arazoa ukutu dogun ezkerok, egoki deritxat emen esatea, Bizkai'ko Aldundiak milloi bateko ta Bilbao'ko Udalak milloi erdiko laguntza emon dauskuela. Bioakie bieri gure eskerrik beroena.

LAGUNTZAK

Esan bearrekoa da baita be, Bizkai'ko ta Bilbao'ko Aurrezki Kutxen oiko laguntzak emon dauskuezala.

Au dala-ta, polito konpontzen garala esan lei. Eta bein edo bein gaiñezkako dirua ba'genduke, euskerearen aldeko ekintza barriak burutzeko izango litzake.

Ekiogun orain geure ekintzen azalpenar.

BATZAR

1981'ko EKIN1

IKASTAROA

Aurten igazko beste ikasle ditugu, au da, 460'tik gora, eta igaz esan neutzuen ber-bera esango dautsuet: leku askotan euskal ikastaldiak sortu diran ezkerok, kopuru naikoa ugari dala esan lei.

Igaz eta igazlenean lez, gure batzordeko Ibarra'tar Bernardo'ren ardurapean, oiko uda-ikastarok atondu genduan.

Nire ustez, sail onek gero ta arrera ohea lortzen dau, beraz au ikusita, aurten be uda-ikastarok egiten jarraituko dogu.

Iru maillakok izan da, ta aren saria 2.000 laurlekokok.

Alkarrizketakok ikastarok 3 sail izan dauz. Arlo onetan be, badirudi gero ta ikasle geiagok dagozala.

Gabonilla'n asita, IRRATI-KATEAK geuk atondurikok euskal irrati-ikastarok barreiatzen dau.

Astegun guztietan (Larunbata bestalde) emoten da. ((Iniciacion al estudio del euskera» dala-kok, ikasbidetzat artu izan da. Ikastaldiak goizok 10'tan izaten dira.

EGUTEGIA

1.981 urtean aurrekok lez, Bizkai'ko Aurrezki Kutxak geuk gertaturikok 1982'kok egutegia argitaratu dau.

45.000 irarri dira, eta nire ustez, azkenengo egutegi onen banaketeta aurrekok urtekokarena baiño obeto egin izan da, euskaldunen eskuetara eldu daitezen aalegin berezia egin dogulakok.

Egutegi au Olazar'tar Martiñ'en zuzendari-tapean gertatu da, eta gero ta aeduratsugokok izango gara egutegiaren ontasuna obaten. Dana dala, datorren urtekok laster asikok dogu, irarkoklara garaiz eldu daiten.

NAGUSIA

!EN AZALPENA

IKAS BIDEA

«Iniciación al estudio del euskera» geure Xabier Peña aztueziñak egiñiko ikasbideetako 2.500 ale argitaratu doguz geure ikasleentzat baita ikasle ez diranentzat be.

«ZER» ALDIZKARIA

Illeroko begiko ta errikoi onek asikeran artutako bidetik jarraitzen dau.

Gure asmoa, baita aren zuzendaria dan Olazar'tar Martiñ'ena izan da, aldizkari erraza ta atsegiñaz irakurten iranetakoa izan daitela, eta nik eskatutako geienen eretxia izan da, asmatu-ko elburuak lortzen dituala.

Azkenengo zenbakia 50'gna izan da. Aurre-ra joan gaitezen ba bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarraz.

IPUIN-SARIKETEAK

Urtero egiten dogun lez, 1.981 urtean Ipuin ospatu genduan, 25.000, 20.000 eta 15.000 milla laurlekoko sariakaz. Ona emen mai-koen eritxia sariketa oneri buruz:

1'goa.—Batiz'dar Bingen

2'gna.—Zubikarai'tar Augustin

3'gna.—Zapirain'dar Erramun.

Onezaz gaiñera, Bermeotar idazle gazte-gaztea dan Bilbao'tar Gidor'i sari berezi bat emon jakon.

KILI-KILI

1.981 urtean zear arazo bi bete ditu Kili-Kili'k: bata alfabetatze ikastaroa; bestea alfabetatze-ko aldizkaria.

Biok aurreko urtearen antzera joan dira. Onein barrutia izan da: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Naparra.

Urtero-urtero ospatu izan dan kili-kili eguna, aurten ez da bete izan.

Gazteen asmoa, Iparraldean ospatutea zan, baiña asmo utsean geratu da. Ez da girorik ez diru-laguntzarik izan asmo eder ori aurrera eroateko.

ALDAKUNTZA

Izan be, azkenengo urteotan gizarte-giroa aldatu dala-ta, Kili-Kili'k bere barruko egiturak aldatu be gura izan dauz.

Lengo urteetan, errietako gazteek abertzale-tasunak eraginda, lagundu egiten eutsoen euskerreari. Gero, baiña, giroak eraginda politikari ekin eutsoen, eta au dala-ta Kili-kili umezurtz itzi dabe.

Gaur Kili-Kili bestera jokatu bear dau.

Sortu dan egoera barri ori, larria da Kili-Kili'rentzat. Gazteen laguntza-ebak itzitako utsu-nea, diru-laguntzaz ordeztu bear.

LAGUNTZA-BILLA

Gauzak olan izanik, Bilbao'ko Aurrezki Kutxarekin artu-emonetan dabil, bearrezko laguntza ori lortzearren.

Benetan, gure errian laguntza merezi dauan asmorik ba'da, Kili-Kili'ren elburuak aurrera eroatea euskerarentzat gauzarik ederrenetakoa dala uste izaten dogu, eta aalegin andienak egingo doguz.

Esaniko Aurrezki-Kutxarekin dagozan artu-emonak bide onera ta nasaira eroango al dabe!

Orrek ez dau esan gura, ezetariko diru-laguntzarik ez dala, izan, baiña orrelako elburuak onik eroateko diru geiago bear da.

ERRI-EUSKEREAK

Esan dagigun barriro: Euskerea it ez daiten erri ta umeak batez be alfabetatu bear dira.

Euskerearen egoerea larri-larria da benetan, eta gure aldetik Kili-Kili'k izkuntzari eskintzen dautson onura ez ederrestea, aberri ta izkuntzaren aurkako pekatu parkaeziña da.

Eutsi dagiogun ba guztion artean, geure-geurea dan Kili-Kili'ri, euskera errikoi, bizia, Euzkadi'ko umeek izan dagien.

Kontuan artu dagigun euskerea salbatuko dauan izkerea, asabengandik etorritakoa, inguruan dirauana, dala, ta ez iñongo asmakizunik.

Eta gaurkoz besterik ez euskaltzale mai

ZUBIRI'tar Iñaki'k

ERANTZUNAK

Martin Olazar jauna
ZER

Olazar jaun maitea:

Aspalditik nabil alegin aundiak egiten gure euskera maitegarria ikasteko. Baña, ikusiko dozun lez, ez dot ondiño apur bat baño ikasi idazteko gitxi eta itz egiteko gitxiago, batez be gizon jakintsuagaz berba egiteko. Orregaitik parkatu egin bear dozuz nire okerrak eta nire asmoaren mamiña erderaz idazten ba dot. Bestela ezin ulertuko izango daustazu.

«Bizkaiko Forua» liburu barria artu ta erabilili dot eta nire ustez (nire eritxiak ez dau ezer balio, ori ba-dakit) liburu oso apaindu ta ederra da. Zuk esan dozu «Zer» aldizkarian «eusker a ederra, jatorra, garbia, ondo josia, egokia, berba baten esateko, benetako bizkaiera, bizkaiera apaindua, zuzendua, egokitu ta batua dala». Zure eritxiak oso poztuten nau, neu be Puxana jaunaren lagun eta adiskide nazalako.

Baña beste gauza batzuk, ez orrelakoak geitu dozuz eta onen buruz esan gura dot, legegizona nazalako, nire eritxia. Erderaz esango dodaz utsik ez eukiteko. (ZER'ek eukeratzen dau).

«Fuero» berbea euskeratzeko «Lege Zarra» itza erabiltearen aurka, itzaltasunik aundienaz agertzen dot nire eritxia. Okerra emendik dator: Askok, lege-zaleak be bai, legea ta eskubidea ez dabezela berezitzen.

Legea eskubideen iturri bat da, ardatz bakarreko ta burubidezko erakundea dauken lurraldeetan garrantzitsuena, baiña beti, antxiña Bizkaia'n lez, benetako erri-agintaritzak dauken erakundeetan txikiena. Legeak baiña garrantzi aundiagoa euken oiturak eta gure «Batzar»en erabagiak eta foru-barruko Alkateenak.

Forua ez da ba euskaldunen legea, euskaldunen eskubidea baiño.

Erdi-Aroko oiturea zan ekanduak, oiturak eta esakun zarrak be bai, idatziz agertzea, orrelan legegilleen (legearen) naikeriak alboratzeko, erri-eskubidea ezerezituta edo baztertuta geratu ez daiten.

Olako lege-moltzoai Frantzia'n oiturak ezarri eutsoen izena (les coutumes de Paris) esaterako) eta Italia'n arauak, gure artean barriz Foruak.

Egia da, Gastelarren eskubide-liburuetan itz ori erregeak emondako eskubide-agiriak azaltzeko erabilten da (Logroño'ko Forua, Cuenca'ko Forua) baiña orrek ez dauko zer-ikusirik gure foruekaz.

Naparroa erreñu zanean, buru-jabetza osoa eukanean, legedi bat egiterakoan (1237'an izan zan ori, I Teobaldo'ren al-dian) Naparroa'ko Foru Nagusia ezarri eutson izena; izen orrek mugea igaro eban eta Benabarre'n «les Fors» agertu ziran.

Bizkaia'k bere foruak eskubideak, frankezak eta erri-eskubideak batu ebazanean, lege biurtzen dauzan 1452'ko idaztiak ardura aundiaz artzen dau «Foru» izena, balio aundiagoko lez eta erritik sortutako eskubidea, ez erregeak emona, gogoratzen daualako.

«Lege» lez iztea, arrisku aundiko jokia izango zan, erregearearen eskubidepean izango zalako aldatzea.

Bizkaia'k bere buruari foruak emoten dautsoz eta egunero jokabideaz ezarten dau, kondairak dakartsozan oztopoak azpiratuz.

Forua, idaztuta gero be, ez da geratzen liburuan betirako geldigi-roan, liburu orreri gauza asko geitzen jakoz edo len esan barik itzi diralako edo Bizkaia'k ulertzen dauzan lez ulertzeko.

Nire ustez, legegintzako Ian orrei «lege» izena ipintea utsune aundi batera jaustea da, gure eskubidearen esangurea galdu egiten da, au erromatarren eta jermendarren burubidetik baiño anglo-sajonen pentsabidetik urrago degoalako.

«Foru» izena, «Lege» izena lez, latiñetik artua da, baiña lenngoak zarren ondorena ta eskubidea ulertzeko era berezia agertzen dau, eskubidea sortzeko era berezi bat, legegintzatik kanpo geratzen dana, au agintaritzak gogorreko ta erriagaz zerikusi gitxiagoko erakundeetakoala.

Ni ziur nago, Arana Goiri eskubide-ikaslea izan ba'litz, ulertuko eballa, erreze, alde au.

Parkatu larregi ekiten ba'dot. Gure izkuntzaren alde egiten dozuzan lanak arrigarriak dira nire ustez, eta batez be, bizkaitarren jokabidean doazelako.

Bizkaitarren agerbide au sendotu ta indartu egin bear da.

Ez artu ba nire itzak aurkako azterpen lez. Nire ardura bizi baten agerbide baiño ez dira. Beste egun baten «franqueza» berbea aztertu gura neuke.

Barrero eskatzen dautzut zure parkamena. Gure erriaren alde bide bardiñean gabiltz eta bide onetan anaitasunez ibilli bear dogu.

Artu egizu besarkada bat.

ADRIAN ZELAIA'k

BIZKAIERA-ADITZA DALA-TA

Leenen eta bein, ez nator ona neure miña agertzera, ezta iñor mintzeko asmotan be, zerbait ikastera baiño.

Orixe'k iñoanez, euskeraz idaztean, guztiok dogu zerbait ikasi-bearra. (Erderaz idaztean be beste orrenbeste jazoten dala uste dot. Nor da, bestela, idazle bikain-bikaina?, guztiz bikaina? Nok ez dau akatsik?).

Irakurri dot ZER aldizkarian (50 garren zenbakian) Olazar jaunak «Bizkaia'ko Forua» liburuari egin dautsan eritzi-pena.

Ez naz sartuko Olazar'en eritziak aztertzer a —batzuk eztabaidazkoak bene-

tan—, aren eritzi bat argituzera baiño, aurrerantzean nire uts-egiñak zuzendu aal dagidazan.

Auxe diño Olazar'ek: «Ba-dauz liburu onek gauza eder eta zoragarriak. Esaterako aditza erabiltea. Onetan Puxana benetako maisu dogu. Iñok ez daki Bizkaia'ko aditza berak bestean erabilten. Eta ori argi ta garbi geratzen da liburuan».

Puxana jaunak «Euskal Aditza Bizkaiera» liburu oso baliotsua idatzi dau; beraz, aditza erabilten ondo ta artez jakin bear berak.

Baiña, «Iñok ez daki Bizkaia'ko aditza

berak bestean ondo erabilten» esatea, lartxo esatea dala uste dot, lartxo esatea eta doan, utsean, emotea.

Ori, Aita A kesolo'k, Aita Onaindia'k, Etxenagusia'k, Aurre-Apraiñ'ek eta beste batzuek, batzuetan beintzat, aditza ez dogula ondo erabilten esatea da.

Leen esan dodana, jakiña: Nok ez dau akatsik? Baiña akatsak eta obenak agertu egin bear izaten dira, akats beretan barrero ez jausteko. Eta agertu bakarrik ez, egiaztu be bai. Izan be, bat da esatea, eta beste bat egiaztea.

Beraz, Olazar adiskidearen argibideen zain geratzen naz, eta gogo onez erantzungo dautsat, nire baietza edo ezetza agerturik. Eta orrela, bearbada, orio-piper saltza geiago emon aal izango dautsagu ZER aldizkari oni. KEREXETA

SEMETALDE ANDI

SABBE'K SEMETZAT ARTUAK.

Biotz andikoak aspaldi zar areitan bakarrik izan ete genduzan?


Orain be ba-doguz.

Gure okerra zer dogun?

Beargintza ederren barri zeatz ez emotea.

Beljekar Sabbe iaunak seme asko dauz. Somalia'ko Lurretan ebillela oso elbarritu iakun, eta mendi-tartean bakar-bakarrik egon bear izan eban.

Osasunera biurtzen asi eta Somalia'ko mutiko batekin adiskide egin iakun. Mutikoa umezurtza: izenez Hossein, eta bost senideak galdu ebazana. Sabbe iaunak Hossein semetzat artun. Barria tximista lez zabaldu eta laister mutiko geiago etorri, Sebbe'ren sendiko izan nai ebela-ta. Sebbe iauna aukera egin barik txarto ibiliko iakula, eta bost urterik amabost



Sabbe'k semetzat artuak

urte artekoak bakarrik artun: gizon zurra zanez, agian. Guztira 30.903 gazte eta gaztetxo. Bai sail ederra.

Somaliarentzat norbait semetzat artzeak bu-ruausterik ez izaten. Bestetik, beljikatarren erkal-araudiak semetzat artzen dauzanari ogeitamabost urtekoa izatea eskatzen: nai ainbat artzeko be, eskuak aske.

Sabbe iaun biotz-zabalak ainbesteko sendiaren-tzat, berak bakarrik iatekoa nondik sortu? Bere aberri Beljika'ko erkal-araudiak arakatuz, gañera legegizon, legelari eta ortan ikaseiei galdezka ibiliz, Belgique'ko Erkalak milloi eta erdi txanpon emon bear eutsola etara eban garbi. Egiz, Sabbe iaunak arauetan zegoena besterik ez eskatzen. Ostera zillarketa andi ori ez izango Erkalarena, ango Sendi-Laguntza izeneko bazkunarena baizik. Bestalde beljikatar guztiak bazkuna ortan bazkide doguz. Alegia, ango bizilagun guztiak bazkunan sartuak doguzala: bai Sabbe iauna bera be. Bazkuna, Beljika'n oso aberatsa dogu. Sabbe iaunak auxe be esaten: Eskuak oparo zabaltzen ez dauzan goi-maitasuna alperra dogu.

Aritzkoa be ez izan eta Somalia'ko Lendakariak Sabbe iaunari esan: Eskuartearen darabilzun lana ondo irteten ba'iatzu, Beljika guztia gure adiskiderik andiena izango dogu, eta angoek emen aurrerapen-bearretan lanengo izango.

Sabbe iaunaren askeneko itzak:

Nere lana ederto doa.

Orain neure aberriko Erbeste-Ordezkiaren eran begira nago. Urte ontako (1981) urrillaren azkenean baietza izango dodala uste dot. Bitartean, irailaren amalaugarrenean neure seme guztien izenak Bruges'ko endorearen eskuetan dodaz. Orrela umeteri ori guztia beljikatar gertatu iaku.

Biltzalle:

Etxeberri s.i. (Ilo-Ilo). 1982.I.20

ILLOZTE

*Urrintxo, kanpayak astiro ta itunki
asi da joten...*

*Enparantza zabalán txirula-atabalak
mendiko negarra, gubanaten.*

* * *

*Goyen da gorpua,
sedazko ikurriñaz, erdi estalduta...*

*Areitz zar-zintsua,
azken igarantza, bururatuta.*

* * *

*Gurutz Deuna aurrian,
il-kutxa ganian,
langillen txapela irabasita.*

*Ain beste koroyak:
lora eder gorriak,
lora eder zuriak, millaka atzian.
Geroau lagunak, itun eta ixillak,
zenbatu eziñak, aldatza goraz...*

*Zeure irakatsiak, biotzan daukoguz.
Zeujarraitzaliak izango gara.*

UTA RSUS

ANDONEGI'tar ZIRIAKO "KUIREKA"

Andonegi'tar Ziriako «Kuireka» 1912'an Epaillaren 16'an, eti bikain eta alaitsu baten jaio zan.

Oraintzu il jakun gizon au, ez zan atantzalea, joskillea baiño.

Or egoten da bere errit kutun orretan zain, egualdiari begira, eguzki apur bat ba'dago bere ibillalditxo egiteko, ostantzean egun gustixan, etxe batuan egoten zan, ez eban ba ezertxo egiten.

Ez, ez eban egiten ezer, bere afenkura zan, ez dabil'ala ondo osasunakin eta, dana bertan bera lagata dago. Len, batez ere guda aufetik, idaziari sutua zan, «Kuireka» izen-ordeagaz idazten eban, «EUKADI», «EL DIA», «EUKO GOGO», «EUKO DEYA», «ZERUKO ARGIA», «KARME», «OLERTI», «REDENCION» abar ta abar.

Bere azken lana edo gatantzidun lana, 1956'an Otsail- edo Zezeil'ean egin eban lan ori, «AITOREN IZKUNTZ ZARA» da, amar bertso eder euzkerari burutz egiña, garai artan, euzkel usain guztiak, jazarpen aundiak eukiten ebazan ta, «AITOREN IZKUNTZ ZARA» agertu zanean lenengo aldiz Ondarfoa'n txapel-oker ta bere inguruak ibil ziran jo ta ke, nor ete zan «AITOREN IZKUNTZ ZARA»'ren egillea.

Ondafu izan zan ba bertso oneik zabaltzeko leku, alan ta guztiz ere, gaur bertan, Ondafu'tar gitxik dakie, bertso onen egillea, Andonegi'tar Ziriako zala, ofegaitik ba, ona emen bertso eder oneik, euzkaldunentzat atsegiñezkoak izango diralakoa.

GORI

AITOREN IZKUNTZ ZARA

Andonegi tar Ziriako'k egiña

I
Aitor'en izkuntz zara
nai degu zabaldu
Munduaren aurrean
gizonki azaldu
Baldin gure zañetan
odolik badegu
Euzkaldunak euzkeraz
itz egin bear degu.

II
Lendabiziko itzak
aurixo nintzanian
Amaren besoetan
Bular bañenian.
Itz auek esan zidan
izketa garbian.
Gorde euzkera semetxo
biotzen erdian.

III
Zein izkuntza edera
euzkera guria
iñun ez det arkitzen
beste bat obia.

Usai gozo dun izkuntz
txukun ta argia,
Biraaurikan ez duen
izketa garbia.

IV
Ez daukagu euzkera
lotsaz baztartzeko
ainbat gutxio beriz
oñazpiratzeko.
Jaïnkook eman zigun
euzkaldunentzako
bere lege santuak
ez dira ukatzeko.

V
Amatxok esan zidan
eriotz eurrean
A gur semetxo laztan
laister naiz lurpean!
Euzkeraz otoitz egin
nere lur gañean,
Euzkeraz nai det entzun
nik zorionean.

IV
Ama! erantzun nion
zure lur gañean
Belauniko jarit-a
otoitz egitean
Euzkeraz egingo del
goiz ta aratsaldian
Biok zaudetelako
nere biotzian.

VII
Etzaiak aurka dabiltz
euzkeraren gaitik
Len, orain eta beti
guztiz aspaldit ik.
Lurperatu nairikan
antzin-antziñatik,
Ez dute ori lortuko
iñongo aldetik.

VIII
Euzkera galdutzeko
ez dago belduik
Munduan ez da sortu
ortako indarrik


Sasi-jakintsu asko
dabiltz galdu nairik
A smo txar aek guztiak
dirade alperik.

IX
Goratu dezagun ba
euzkera laztana,
Gure asabagandik
ikasi genduna.
Pozgarisiko izkuntza
maitatzen deguna
Biotz naigabetua
sendatzen diguna.

X
Gora euzkera maite
zoragafiena.
Euzkaldunen artean
maitagarïena.
Munduan sortu zanik
izkuntzik zarena
Gora ta gora beti
EUKADI ta EUZKERA!

KUIKERA

Mutriku'n egiña, 1956'ko otsaillean.



«BERMEO»

LITERATUR LEIAKETA

BERMEOKO BATZOKIAREN KULTUR BATZORDEAK ERATUTA, TA BERMEOKO UDALAREN BABESEAN

— ONARRIAK —

1. Gura daben idazle guztiek artu daike parte, edozein jatorrikoak naiz edonongoak izan arren.
2. Leiaketa onetara aurkeztutako lanak, euskeraz idatziak izan bearke dabe, Bizkaiko euskeraz ain zuzen bere. Ganera, or ijinalak eta argitara emon bakoak izan bearke dabe.
3. Gaia, BERMEO izan bearke da, au da, Bertneori buruz idatzitako edozein eratako idazlanak, bai ipuifak, kontaktak, (jazotakoak edo asmatutakoak), etnografi edo edesti lanak eta abar.
4. Lan oneetan, literatur aldeko balioa neurtuko da bakarrik, eta ez euki leukeen beste cratako garrantzia edo balioa.
5. Lanon luzera, gitxienez bost orrialdetakoa izan bearke da, tarteune bigaz eta alde batetik bakarrik mekanografiaturik.
6. Lanak bialtzeko epea, 1982. Jorriallaren 30'ean amaitzen da. Bialtzea ondorengo zuzenbide onetara egin bearke da:
Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordea,
Askatasun Bidea kalea -BERMEO
Lanaren amaieran, lema bat jarri bear da. E ta lanagaz batera, beste kartazal bat bialdu bearke da itxita. Kartazal orren kanpoaldean, lema berori jarriko da ta barruan egillearen izen abizenak, bizilekua, ta izenpca.
7. Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordeak berak izendatuko dau epai-maia, eta onek, Orrillaren (maiatzaren) 31 bafo arifiago agertuko dau ebatzia.
8. Leiaketan izango diran sariak oneTxek dira:
Lenengo Saria 50.000,- pesetakoa
Bigarrena 20.000,- pesetakoa
Eta 10.000,- petetako iru aipamen urrengoeot8at.
Saritutario bat, 18 urtetik berako bermeotar bat izango da.
9. Saridun lanakaz, Bermeoko Udalajaubetuko da.
10. Sariak emoten diranetik urte bete garrenerarte, Bermeoko Udalak argitaratuko ez baleuz saridun lanak, eratzalleak, au da, Bertneoko Batzokiaren Kultur Batzordeak leuke eskubidea lanok argitaratzeko.
11. OI1arriotan eta Iciaketa bitartean izan daitezkan gorabretan, Bermeoko Batzokiaren Kultur Batzordeak eukiko dau azken itza.
12. Leiaketan parte artu ezkerre, dcrriroz onartu bearrekoak dira artegaroko ofarriok.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA

Euskalerritik Mundura Begira

ISRAEL - PALESTINA

Golan'go larreetaz mintzatu gintzazan joan dan illean. Baiña Golan'go auzia, sasi biurri mingarri bateko arantzaxo bat besterik ez da. Palestina da, Palestina osoa, eztabaidan dagoana: Arabitarrek eta Isrraeldarrak bein baiño geiagotan gudara eroan dauzan auzi naasia, eta orain ere guda-arrisku larrean daukazena.

Euskaldunok begi atsegiñaz begiratzen dautsagu gurekin gauza

dauan Israel'ko Erriari. Baiña adiskidetasunak zearo aztuta, saia gaitezen gaur Palestina'ko arazoa nolobait argitzen.

Norena da Palestina?

—«Gurea —esaten dabe arabitarrek—. An jaioak gera gu. An Jaio ziran gure asabak eta gure asaben asabak. Arabitarrok maomatar egiñ baiño leen ere, gure zan Palestina. Eta baita Maoma bera jaio baiño leen ere». (Eta arrazoi dabe arabitarrek ontan, II mendea ezkerro beena izan bait da Palestina).

* * *

—«Egia —erantzuten dabe israeldarrek—; Baiñan leenago, gurea zan lur ori Abraan'en denbora ezkerro. Ta gure asabak, Ejito'n edo Babiloni'n katigu ibilli ziranean ere, Palestina'ra begira egon ziran beti, eta Palestina'ra itzuli aal izan eben bezain laister. Au

bait da Jainkoak agindu euskun Aberria; au gure «Lur Donea». «Babiloni'ko ibai-ertzetan jesar, tzen gintzazan negarrez Sion go-goan genduala», abesten dau orduango Salmuak; eta «itsasi daki-dala miin au ago-sabaian, zutzaz gomutatzen ez ba'naz, Jerusalem, eta nere pozen gaillurrean zeu jarten ez ba'zaitut».

* *

—Bai, baiña ia-ia bi milla urte ba-dira arabitarrok onera etorri gintzazala. Ez al ba bi milla urte oien epea lur au gurea dala esateko naikoa? (Ez dabe arabitarrek gezurrik esaten).

—Zuek ordea era zikiñean otorri ziñaten orduan ere lur ontara. Gu ez gintzazan emendik gure gustora joan. Adriano Inperatoreak erbesteratu ginduzan, erioztarako zigorpean, gure asabak 132'garren urtean erromatarren aurka jaiki ziranean. Guk ez genduan lur au itzi. Kendu egin euskoen erromatarrek. Orregaitik, guk ez genduan orduan ere lur onen jabetasunik galdu. Guk ez dautsagu lor au iñori eman. Lur au gurea dala oiugu beti. Indarra ez da arrazoi. Ez dau jabetasunik galtzen, idarrak zanpatuta jabetasunaz erantzia izan danak, jabetasun orri uko egiten ez ba'dautso. Eta

guk ez dautsogu lur onen jabetasunari ukorik egin. (Egi aundia, israeldarrek diñoen au guzia ere!).

Irakurle: Norena ote da Palestina?

* * *

«Ia iruereun urte ba-dira Jibraltar'ekook or bizi zarietela, egia, baiña Jibraltar neurea da —oles dagi Españi'k—; neurea da, neri

da. Neuk ez dot iñoiz lur orri buruzko jabetasunik aztu; ezta ukatu ere». (Ba dirudi Españi'k arrazoi dauala).

Beste era batera mintzatzen da Españi bera Zeuta'ri eta Melilla'ri buruz. «Uri oiek indarkeriz artuak izan dirala diñotzue —esaten dautse moruei—, baiña kontu oiek aspaldiko kontuak dira. Bosteun urte inguru ba daroez españiarrek or bizitzen, eta lur oiek gureak dira. (Oraingo ontan ere ez dauala gezurrik esaten, dirudi).

* * *

Norena ote da Jibraltar? Norenak ote dira Zeuta eta Melilla? Norena Palestina? Ta Euzkadi? Norena ote da Euzkadi?

Lurraren jabetasunari dagokion punttu au argitu nai nuke datorren illean.

LATIEGI'tar Bixente

BAPEZTUTZEN?

Gure euskal erri maitia, zuzenduko ete da beiñik beiñ?

Oso zalla ikusten dot gure erriaren berpizkundera.

Ludi ontako gizon jakintsu guztiak, ontzat artzen dabe euskal nortasuna, zalantzarik ez dago euskal abenda, ainbeste aneñ urteako bizitasunaren jabe dala, gaur arteraño oztopo guztiak gaizkatu ditu, ezer ez dakigu antziñako gure asabaren gora berai, buruz, oraintsurarte ez da ezertxo ere idatzi, ez daukagu argitasunik, euskal izakeraren susmorik, nundik norakoak geranik, abar ta abar, zer bait an, Santimamiñen ei dago baña, Santimamiñen lako marrazki bardiñak, leku askotan agertzen dira, ala, ludi ontako basterren batetik bultzaka ekarri al gaitue ba? Eta andik igaro giñeanean egindakoak ete dira ba, marrazki orreik?

* * *

Gizon ulermen ikastetakoak, gura dabena esan leike, baña, guk, jakintsuak ez garanok, ikusten, dogu baster ontara bultzatuak izan bai Santander, Burgos, Errioxa, Soria, Zaragoza ta Ueska'ko lur aldetik, baita Prantzi'ko lur galantak ere kendu edo laga ziran, Akitania ta abar, emen, lur ontan agertzen gara ba azkenean.

Noiztik?, iñok ez daki gai au, ikusten dodana da, emen, geratu gintzanzala estalduta ipar ameriketako indixuen antzera, areik ere euren estalpe berezia euki arren, sarri entzuten dogu euren lur apurre zatika kendu nairik dabillzazala. Gurekin ere zerbait jazoten da.

Prantzi aldeko lurak galdua dagoz euskal izakerarako, Venezuelan egon izan naiz ta an, Lapurdi ta abarreko euskaldunik ez zan agertzen Euzko Etxera, ez alde ortako auskaldunak ez dagolako, an dagozen «Prantzez Euskaldunak» ondo ezagutzen doguz.

Eta emen? Nik ez dot ezagutzen lur alde ori ondo, baña, iñoiz joaten naizenian, euskal usaiñ gitxi ikusten dot, nere ustez, lur alde orreik, Errioxa'ko antzera geratuko dirala.

Olaxe goiaz, geroago ta bapeztuago.

Naparrakin ere or gabiltz kilin kolon.

Gure aita Sabin agertu zanean, uste genduan begiak zabaldu genduzanla, aurrerantzian, nunzapaldu bagenk'ela, gure elburu bakarra abertzaletasuna zala, beiñik bein, Sabin'en ereduz jokatu biarko gendula euskal nortasuna berpiztuarte, gure guda madarikaturarte, ori izan zan abertzaletasunaren lenengo elburua, erdiko bide zuzen bat artu zan eta or jarraitu genduan, gura ebanak gureganandu, ongi etorria, eta ostantzean or konpon.

Gaur, eziñ leitekela olan jarraitu diñoe, bide ori ez ei da «DEMOCRATICO» a «DEMOCRATICO» a ez dan lez, emen gabiltz karramarruaren antzera albo alboka, gure izaera suntsituten.

«DEMOCRATICO» a ei da, apaltasun menpe baten, amen amen egitea, «DEMOCRATICO» a ei da, Lekuona fauna, indar edo gogorkerikin EUSKALTZAINDIA 'ko lendakaritzatik kentzea, «DEMOCRATICO» a ei da, zin egitea onerako edo txarrerako euskal zuzkidatz (ortografia) an «H» sartzea Sabin irakaslearen eredu apurtu na!' ba'da, «DEMOCRATICO» a ei da, EUSKALTZAINDIA ortan Sabin gaitik esatia GIZON MADARIKATU ORI, «DEMOCRATICO» a ei da GIZON MADARIKATU ORI esan ebanari, goralmen ta laguntza emotea.

* * *

Lur alde ederrak galdu doguz eta geiago galtzeko arriskuan goiaz.

Sabin'en ereduz tinko jokatu gendun guda aurretik eta indartsu gintzan, gaur, gastelerazko esaera dan lez «COGE FAMA Y PONTE A DORMIR» entzutea artu bai eta, lo egizu, ori da gaurko joera.

Bitartan guk, daigun euskal urrutirudizkiña eta eurak, ezkertarrak euki daiteken erreztasun geiago Sabin'en ereduzko zuzkidatza zapaldutzeko, jarraitu daigun ba betiko lez siñiskor.

GORRI

BARR E-GAIAK

Bein batean Afrika'ko erri baten, epai-mai batek gizon bat il egin bear zala erabagi eban zigor eredugarri bat emoteko.

Gainera ilketa ori gas-gelan egin bear zala. An doaz ba, epai-maiko burua, osa abadea eta beste guztiak morroi onegaz gas-gelara. Gelara sartu eta bat-batean iltekoa zana, gora begitu eta barrera asten da.

Zeri ainbeste barre? —diñoso urkatzailleak—.

Ba, ez dozu ikusten gela onek ez daukala zapairik?

Bai, eta zer?

Eta zer?, ba gas guztiak iges egingo dabela eta ez nozue ilko!! Ja, Ja...

Ez e?, Itxaron butanozko bonbonak botaten asi arte, ia orduan be barre egi-ten dozun!!!

* *

Beste batean zoro edo ero bi oiñez joiazan itxas-bazterretatik. Alako baten

E A T R O G L A R
L S T O R G B O I
A L M E R O A R E
N A S M T T K R X
T I T R S N I A P
X A L E D A O D M
O S S B Z B K N B
B K T S O A I O U
E O I T I E K A L

Aurkitu lauki onetan Bizkaiko itxas bederatzia erriren izenak. JA-JAI

21.º ERANTZUNA

1	S	A	L	T	Z	E				A	I	E	Z	K	A
2	U		A		A		A	R	G	I					R
3	N		Q		U		G			N	E	K	A	T	U
4	T		U		N		U	A		B			Z	A	N
5	S			N	I	K		R		A			A		T
6	I			A	B	E	R	A	T	Z			L	E	Z
7	T	O	K	I		A		G				O			A
8	U			Z		T		G	U	R	A	S	D		G
9		U		E	N	F		A	R			O	N	D	O
10	E	G	A	N		G	A	R	T	S	U		D		
11	G	A				I	G	A	Z				A		O
12	A	R	I	N		N	E	G	A	R	C	A	R	R	I
13	Z		R		E			A				A	T		A
14	T		E		L			R				I	Z		L
15	I	Z	A	K	E	R	A		G	A	N	G	A	R	

Corri

bietatik batek erlojua artu eta itxasora botatzen dau.


Zertarako botaten dozu erlojua uretara? —Itaunduten dautso besteak—.

Ia uger egiten dakian ikusteko, baita antza danetik ez daki ondora joanda eta...

Baña emon dautsazu kuerdarik? Ez... zer ba?

Zu ba-zarala memeloa, zelan egingo dautsu ugar kuerdarik ez ba dautsazu emoten?

JA-JAI



Corri

EZKERRETI ESKUIRA: 1. Trece.-2. Sobako.-3. Dia (el).-4. Natural de oriundo de. Bautizo.-5. Ni una palabra. Vengo.-6. Vos, usted (agente de zu).-7. Escombros. Vara, palo.-8. Interj. de sorpresa. Castilla.-9. Donde. Dos.-10. Alli. Caza. Brotar.-11. Cesto. Hilo.-12. Disgusto. Tu, usted.-13. Dedo. Morir. Volar.-14. Verano. Tu mismo.-15. Television. Casi, a ver si.

GOITIK BERA: 1. Hermandad (la). Piel, cuero.-2. A, al.-3. Desgranar. Quitar, quitarse. Encender.-4. Cuajada.-5. Tres. Hermano (de n-mjer).-6. Torcedura, torcido.-7. Reloj. Llegar, agarrar, maduro.-8. Es un sufijo que indica accion.-9. Mi

Este, esto, esta. Negacion.-11. El decia. Poder. A punto de. Tu mismo.-12. Niño.-13. Espina. Navarro.-14. Prefijo intensivo.-15. La Pamplona.

Oar bat:

Gurutz-izki au, Sabin'dar idazkeran dago r I ta abar.

EUSKERAZALEAK

Idazten txarrenetatik txarrena nazela uste izaten dot, baiña ez da egia.

Lotazillaren 10'ean, larrabetzuarrak Larrabetzu'n idatziriko orria Berango'ra joanik, eta andik nigana osteratxua eginda, euskera, gaztelera ta prantzez egiña izan dana, euskera politikatuzkoa, ikurriñaz datorkit.

* * =

Ikurriña, alan zala eritxiz, tokirik egokienetan jarria izan da. Ortik aurrera, esan dotazenetan egiña dalarik, aditz eta itz nonbaitekoak agiri dira: «Dan, den; dut, dot, heuren-tzat, delako, dalako; gera, gara; ta abar. Asanblada, salan, atentatu, anulatzen, kondizioa, dimisioa, normalizatu, entzerrona, greba, efikazenetariko» abar, abar eta abar.

* * =

Ezeren jabe ez dan onek, zerbait ba'leuka be, garai-ikurrik gorengoena larrabetzuar jatorrentzat izango neuke. Gora Larrabetzu'ko euskera bitxia!

* * =

Beste bat be emen. Lotazillaren erdi-samar. Bilbo'ko Udaletxeko langilleak lan-iztez, esarre samiñean diardue.

Orman ipiñirik euken iragarkia aizez eta euriz ondatu arte. Olan zan: «Negoziazio kolektiboagaitik greba».

Iru itz, irurak erderaz jarriak!

* * =

Batzar baskoetatik, euskaltegietatik, gau-eskoletatik eta Realetik ez zan iñor urreratu txarto egiña zala esatera.

Euskera gaisoa, errukarria!

Zin egin eben, zin ori geroz Arantzazu'n azaldu ziran Lekuona jaun aundiari egoan tokitik alde egin-arazoz, euskera erdeldunduten. Erdeldundute onen susterrak Arantzazu'n dira.

LANDAJUELA'tar A'k

GOIZ-ARGI

Erribideko aldizkaria

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

Erderaz

BARRIAK ETA ARAZOAK

SASKI-NASKI

ERRIBIDEKO ALDIZKARIA

Bizkaieraz

Gipuzkoeraz

munduko goraberak, jazokizunak, barregaiak...


VIZAR

Colon de Larreategui, 14 - 2.º dcha. BILBAO.1

Porque lo nuestro es Vizcaya Bizkaia geurea dogulako

Couñe en nosotros

Zenue nortea gurean



**CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
BILBO AURREZKI KUTXA**